



EUSKO JAURLARITZAREN ETA EUSKADIKO UDALEN ELKARTEAREN (EUDEL) ARTEKO JARDUKETA-PROTOKOLO OROKORRA, HIRI-INGURUNEKO MERKATARITZA SEKTOREA BERRAKTIBATZEKO. HORRETARAKO, KONTSUMOA SUSTATZEKO SISTEMA GARATUKO DA, BONU BATZUEN BIDEZ. BONUAK MERKATARITZA- ETA ZERBITZU-ESTABLEZIMENDUEN ESKURA JARRIKO DIRA, ETA ESTABLEZIMENDU HORIEK LOTURA IZANGO DUTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN KOKATUTAKO HIRIKO MERKATARITZA-JARDUERAREKIN. HALABER, BONUAK HIRITARREN ESKURA ERE EGONGO DIRA, EUSKADIKO LURRALDE OSOAN ONDASUNAK, PRODUKTUAK NAHIZ ZERBITZUAK KONTSUMITU DAITEZEN. “EUSKADIBONODENDA 2023”

ELKARTURIK

Javier Hurtado Domínguez jauna, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, Lehendakariaren 2020ko irailaren 7ko 30/2020 Dekretuaren bidez izendatua;

Esther Apraiz Fernández la Peña andrea, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) izenean eta haren lehendakari gisa, erakunde horren Batzar Nagusiak 2023ko irailaren 19an izendatua,

Alde guztiek elkarri aitortzen diote badutela behar adina gaitasun juridiko Jarduketa Protokolo Orokor hau izenpetzeko, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

2020an, Covid-19aren pandemiak eragindako krisiarekin, ezohiko gogortasun-egoera bat ireki zen merkataritza-sektorearentzat, ez bakarrik kasu askotan itxiera-aldi luze bati edo inpaktu suntsitzaileko fakturazio oso txikiei aurre egin behar izan ziolako; baizik eta bere osotasunean aurre egin ziolako ziurgabetasunez betetako jarduera-egoera bati, aurreikusten den panorama ekonomiko gogorragatik.

2021ean egoera pandemikoak jarraitu zuen, eta kutsatzeek hainbat alditan egin zuten gora. Hala ere, merkataritza-jarduera hazi egin zen, logikoki, aurreko ekitaldiaren aldean, eta 2021. urte osoan txikizkako merkataritzaren salmentak % 3,6 gehitu ziren.

2022aren hasieran, sektoreko salmenten goranzko joerak jarraitu egin zuen. Hala ere, Errusiak Ukraina inbaditu izanak ondorio ekonomiko larriak ekarri zituen, hala nola erreagaien eta lehengaien garestitzeak, denboran zehar iraunkorrak izaten ari direnak.

Horrek guztiak produktuen prezioa igotzea eta kontsumitzaileek erosteko ahalmena galtzea eragin zuen, eta, ondorioz, kontsumoak behera egin zuen.

Eustatek aurtengo abuztuan merkataritza-sektoreko salmenta-indizeari buruz emandako azken datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmentak % 1,1 igo dira 2023ko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren ondorioak atera eta prezio konstanteetan aplikatuta. Zerbitzuguneak kontuan hartu gabe, salmenten urte arteko hazkundea % 2,3koa izan da. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmenta-indizea % 0,5 igo da 2023ko bigarren hiruhilekoan.

Azken datu horiek joerak ebaluatzeko balio digute. 2020 eta 2022 urteen artean izandako gorabeheren eta hauek merkataritza-sektorean izan dituzten ondorioen ondoren, esaten digutena da maila prepandemikoak berreskuratzen ari garela. Datuak potentzialki positiboak izan daitezkeen arren, ikusi beharko da maila horiek egonkortu egingo ote diren eta, azkenean, benetako suspertze eta berraktibazio ildo batean kokatuko garen.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiak neurriak hartzen ari dira beren jardun-eremuetan, egungo egoera ekonomikoa arintzeko eta hazkunde ekonomikoa eta enplegua bermatzeko, batez ere merkataritza-sektorean.

Illo horretatik, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) laguntzarekin, deskontu-bonuen programa hau ezarri du, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduetan kontsumoa suspertzeko: «Euskadi bono-comercio/Euskadi bono-denda». Pizgarri- eta estimulu-sistema berbera da Euskadiko Erkidego osorako, herritarrek beren lurralde-eremuko merkataritza-establezimenduetan erabil ditzaketen deskontu-bonuen bidez.

Merkataritza-sektorearen pizgarri-programa honek barnean hartzen ditu bai Eusko Jaurlaritzak finantzatzutako deskontu-bonuak (lurralde historiko bakoitzeko merkataritza-establezimenduen ehuneko demografikoarekiko banaketa proportzionalaren oinarritzko irizpidearekin banatuko direnak), bai eta parte hartzen duten udalek finantzatzen dituztenak ere (dagokien lurralde-eremu bakoitzean banatuko direnak).

Programa honen denbora-garapena sektoreak emandako aurreikuspenak kontuan hartuta diseinatu da, sektorea modu egokian suspertzen eta desestazionalizatzen laguntzeko eta programa ahalik eta gehien zabaltzeko aukera emango duen egutegi baten bidez. Horretarako, kanpaina atxikipen-aldia amaitu eta dagokion egiaztapena egin ondoren hastea eta 2023ko abenduaren 5ean amaitzea aurreikusi da. Epe horren

hasiera Merkataritzako zuzendariaren ebazpen bidez zehaztuko da, eta honako web-orri honen bidez jakinaraziko da: <https://www.euskadibonodenda.eus>

Hitzarmena sinatu duten administrazio publikoek ondotxo dakite elkarrekin jardunez gero eraginkorragoa eta efizienteagoa izango dela sektorea bultzatzeko lan hori. Alde horretatik, bai 2020an, bai 2021ean zein 2022an, hainbat pizgarri-programa jarri ziren abian, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-establezimenduetan eta hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuetan kontsumoa sustatzeko diseinatuak. Horietan, tokiko administrazio publiko desberdinek borondatez hartu dute parte, bakoitzak zituen aukeren arabera. Programa horiei esker, oinarriak hobetu eta agertoki berrira egokitutako programa berri bat sustatu ahal izan da, eta, horretarako, "EuskadiBonoDenda" izeneko programaren funtsezko elementuak adostu dira 2023ko edizio honetan.

Aldeen asmoa da Jarduketa Protokolo Orokor honetan jasotzea elkarrekin lan egiteko borondatea, sustapen-jarduketa honen funtsezko elementuak zehaztu ondoren; hala, indar handiagoz estimulatuko da eskaria, eta efizienteagoa izango da merkataritza-sektoreko enpresak eta hiri-inguruneetako merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak berraktibatzen laguntzera bideratutako jarduna.

Jarduketa Protokolo Orokorra da, hain justu, helburu horri ondoen erantzuten dion figura administratiboa. Aldeen asmoa sinatzaileek elkar ulertzeko oinarriak ezartzea da, elkarlanerako eta hiri-inguruneetako merkataritza sustatzeko jarduerak aurrera eramateko. Baina esplizituki ezartzen da Jarduketa Protokolo Orokor honek ez dakarrela konpromiso juridikorik.

Hitzarmenaren helburuak alderdi bakoitzaren zerbitzu eta bitartekoekin garatuko dira, eta, hala egokitzen denean, ordenamendu juridikoan ezarritako prozeduren bidez etorkizunean adostu daitezkeen administrazioen arteko lankidetzaharremanteko teknikekin. Horrenbestez, formula horrek errespetatzen ditu, batetik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.1 artikulua 2. paragrafoan jasotakoa, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 54.2 artikuluan xedatutakoa.

Horretaz gainera, Jarduketa Protokolo Orokor honek eranskin bat izango du. Bertan agertuko da zein udalek hartzen duten konpromisoa, beren zerbitzuak nahiz bitartekoak tarteko, erakunde arteko baterako jardura-ekimen honetan parte hartzeko. Horren bidez, sustatuko da, oro har, kontsumitzea Euskal Autonomia Erkidegoko hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-sektoreko establezimenduetan, eta merkataritza-jardura bultzatuko da.

Horregatik guztiagatik, erabaki dute Jarduketa Protokolo Orokor hau sinatzea, honako klausula hauek ezarririk:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- JARDUKETA-PROTOKOLO OROKORRAREN XEDEA

Jarduteko Protokolo Orokor honen xedea EUDELein lankidetza-esparru orokor bat ezartzea da, udalak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta herritarren eskura dauden hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduen eskura jarritako deskontu-bonuen bidezko pizgarri- eta estimulu-sistema batera atxiki ahal izateko.

Baterako jarduera horren bidez, honako helburu hauek lortu nahi dituzte aldeek:

- Norbere konturako langileei eta merkataritza-sektoreko mikroenpresei eta enpresa txikiei eta hiri-inguruneetako merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuei indartzen laguntzea. Ondorio horietarako, aldeak ados daude auzi hauek kontuan hartzearekin:

- ETEen kategorian, enpresa txikitzat jotzen dira, 50 langile baino gutxiago izanik, urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko zenbatekoa gaingitzen ez dutenak.
- ETEen kategorian, mikroenpresatzat jotzen dira, 10 langile baino gutxiago izanik, urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 2 milioi euroko zenbatekoa gaingitzen ez dutenak.

- Merkataritza-sektorearen eta hiri-inguruneetako merkataritza-jardueraren oinarri diren herritarrei eta enpresa-sareari laguntzea, eskaria bultzatuz.

- Merkataritza-jarduera dinamizatzea, udalerrian eta eskualdean kontsumoa sustatuz.

- Merkataritza-establezimenduen eta hiri-inguruneetako merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen maniobra-funtsa hobetzea.

- Kontsumoaren moteltze nabarmena arintzea, kontsumitzailearen egoera ekonomikoaren beraren eta kontsumoa une honetan merkataritza-jardueraren aurrean lehentasuna duten aisiako, hezkuntzako edo etxebizitzako sektoreetara mugitzearen ondorioz.

BIGARRENA.- GARAPENA

Jarduteko Protokolo Orokor honen izaera juridikoa dela eta, pizgarri- eta estimulu-sistema administrazio publiko bakoitzean ezarri eta betearaziko da, bere zerbitzu eta bitartekoekin, eta, hala egokitzen denean, ordenamendu juridikoan ezarritako prozeduren bidez etorkizunean adostu daitezkeen administrazioen arteko lankidetzaharremanei dagozkien teknikekin. Juridikotasun horrekin bat etorritik, protokolo orokor honek ez du ekarriko haren ondoriozko finantza-konpromisorik hartzea.

HIRUGARRENA.- LANKIDETZA-ESPARRU OROKORRA

Alde sinatzaile bakoitzak egiten duen garapenaren eta administrazio bakoitzak ezartzen duen diru-esleipenaren kalterik gabe, aldeak ados daude honako auzi hauen gainean:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan bizi diren 16 urtetik gorako pertsona fisikoen eskura jartzen dira merkataritza-bonuak.
2. Programaren bidez ahalik eta enpresa gehienetara iristeko, eta kontuan hartuta merkataritza-produktu, ondasun eta zerbitzuen kontsumoa sustatu nahi dela, aldeek uste dute administrazio bakoitzak ezartzen duen sistemak mugatu egin behar duela establezimendu edo enpresa bakoitzean fakturako erabili beharreko bonuen kopurua, eta, era berean, pertsona bakoitzak erosi beharreko bonuen gehieneko muga ezarri behar duela.
3. Merkataritza-establezimendu bakoitzari dagozkion bonuen kopurua lineala izango da, eta jaulkitako bonuen kopuruaren eta aplikatu beharreko lurralde-eremuan deialdian parte hartzen duten establezimenduen kopuruaren arteko erlazioaren arabera izango da. Hala ere, administrazio sinatzaile bakoitzak, bere beharrian eta berezitasunen arabera, beste banaketa-sistema batzuk erabil ditzake.
4. Merkataritza-bonuak behar bezala zabaltzeko, komunikazio-kanpaina orokor bat egingo da, eta beharrezkoa izango da Jarduera Protokolo Orokor hau sinatu duten alderdi guztien adostasuna izatea; hala, protokolo hau sinatu duten administrazioek behar bezala jasota ikusiko dute sektoreari eta herritarrei laguntzeko egiten duten ahalegina. Nolanahi ere, kanpaina espezifikoak baliatu ahalko dira ekimena indartzeko.
5. Aldeek merkataritza-bonuak batera merkaturatuko dituzte, guztia ere lehendabizi sektorearen aurreikuspenak entzunda, eta sektorearen berraktibaziorako ahalegin partekatuen eraginkortasun eta inpaktu handiena bilatuz, eskaria sustatuz eta fluxuak lurralde guztietan sortuz. Dena den, erakunde bakoitzak ahalegin gehiago

ere egin ahal izango ditu baterako jarduketaren osagarri gisa, sektoreak bere lurralde-eremuan dituen baliabideen eta beharren arabera. Egoki iritziz gero, Jarduketa Protokolo Orokor honetan aipatzen den baterako jardunaren parte diren irizpideak, tresnak, materialak edo elementuak erabili ahal izango ditu.

LAUGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDE MISTOA

Jarduteko Protokolo Orokor hau sinatzen den unetik aurrera, alderdiek, adostasunez, Jarraipen Batzorde Misto bat eratuko dute, eta haiek izendatutako ordezkariak izango ditu. Batzorde hori arduratuko da protokoloak sortutako ekintzak planifikatu, jarraitu eta ebaluatzeaz.

Jarraipen Batzorde Mistoak protokolotik eratorritako ekintzen plangintza, jarraipena eta ebaluazioa gainbegiratuko du, eta horiek gauzatzean sor daitezkeen gorabeherak ebatziko ditu. Betearazpenean edozein aldaketa eginez gero, Jarraipen Batzorde Mistoak onartu beharko du.

Jarraipen Batzorde Mistoaren kide izango dira EUELEko ordezkari bat, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko ordezkariak. Azken horiek honako hauek dira:

- Merkataritza Zuzendaritzako titularra.
- Merkataritza Zuzendaritzako Antolamendu, Sustapen eta Lehiakortasunaren arduraduna.
- Merkataritza Zuzendaritzako teknikaria, «Euskadi bono-comercio / Euskadi bono-denda» programaren arduraduna.

Batzorde horretan izango dira EUELEn bidez kanpainarekin bat egin duten udal guztien ordezkariak, seigarren puntuan jasotzen den bezala.

Merkataritza Zuzendaritzako titularra izango da jarraipen-batzordeko lehendakaria, eta jarraipen-batzordea gutxienez hilean bitan deituko da.

Idazkaritza Eusko Ganberetako ordezkari batek beteko du, EuskadiBonoDenda programaren erakunde laguntzaile gisa, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 16. artikuluan eta hurrengoetan agindutako zereginak beteko ditu.

Kide anitzeko organoak egiten duen bilkura bakoitzeko, 40/2015 Legearen 18. artikulua arabera, idazkariak akta egingo du, eta honako hauek zehaztuko ditu, nahitaez: bertaratutakoak, bileraren gai-zerrenda, bilera non eta noiz egin den, eztabaidetako puntu nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

Idazkariak lehendakariaren oniritziarekin egingo du akta, eta bitarteko elektronikoen bidez igorriko die Jarraipen Batzorde Mistoko kideei. Kide horiek bide berberen bidez adierazi ahal izango dute testuarekiko adostasuna edo eragozpenak, ondoren hurrengo bileran onar dadin.

BOSGARRENA.- JARDUKETA-PROTOKOLO OROKORRAREN INDARRALDIA

Jarduteko Protokolo Orokor hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean. Izaera kontingente hutsa duenez, 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, baita protokolo honen balizko luzapenetan ere.

SEIGARRENA. UDALEN ATXIKIPENA


Jarduteko Protokolo Orokor honetan zehazten den ekimena EUDElen bidez jakinaraziko zaie EAEko udal guztiei, parte hartuko duten ala ez azter dezaten. Horretarako, interesaturik dauden udalek sinatu beharko dute bat egiten dutela protokoloarekin, eta erakunde sinatzaileztat hartuko dira ondorio guztietarako.

ZAZPIGARRENA. DENUNTZIA

Aldeetako edozeinek denuntziatu ahal izango du protokolo hau, beste alderdiei idatziz jakinarazita, protokoloa bertan behera utzi nahi duen eguna baino hilabete lehenago.

Nolanahi ere, alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmenaren denuntzia jakinarazten duten unean hasita dauden ekintzak bukatzeko.

Eta aurreikusitako ondorioetarako jasota gera dadin, Jarduteko Protokolo Orokor hau sinatzen dute, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren datan.



Javier Hurtado Domínguez
Eusko Jaurlaritzako Turismo,
Merkataritza eta Kontsumoko
sailburua



**Doña Esther Apraiz Fernández la
Peña**
EUDELeke Elkarteburua